

DATU PERTSONALEN BABESA

Pertsona fisikoen datu pertsonalak erabiltzen dituzten enpresa eta pertsona autonomo guztiek datuen babesari buruzko araudia bete behar dute. Datu pertsonalak pertsona jakin bat identifikatzeko aukera ematen dutenak dira.

Datu pertsonalak babesteko betebeharrak:

Datuen babesari dagokionez, hauek dira bete behar diren betebeharrak:

- **Datu pertsonalak biltzea.** Erabili nahi diren helburuaren arabera egokiak direnean bakarrik jaso ahal izango dira.
- **Informazioa.** Interesdunei beren datuen tratamenduari buruzko informazioa jasotzeko eskubidea bermatu behar zaie: erantzulea, helburuak, iraupena, hartzaileak, arriskuak, arauak, babesak eta dagozkien eskubideak, eta horiek erabiltzeko modua.
- **Adostasuna.** Datu pertsonalak bildu eta tratatu ahal izateko, datuak ematen dituen pertsonaren baimena izan behar da. Borondate askearen, espezifikoaren, informatuaren eta zalantzarik gabekoaren adierazpena izan behar du, eta adierazpen baten edo baieztoko ekintza argi baten bidez onartzen du berari dagozkion datu pertsonalen tratamendua.
- **Babes handieneko datuak.** Ezin da ideologia, afiliazio sindikala, sinesmenak eta abar adierazten dituen daturik gorde.
- **Sekretua.** Fitxategiaren arduradunak eta datuen tratamenduan parte hartzen duten pertsona guztiek isilpean gorde behar dituzte datu horiek.
- **Komunikazioa eta lagapena.** Datuak hirugarren bati baino ezin zaizkio jakinarazi edo laga, eragindako pertsonaren baimenarekin.
- **Tratamenduaz arduratzen diren pertsonen bermeak.** Datuen arduradunak tratamenduaren ardura izan dezaketen enpresek edo pertsonak horri buruz eskaintzen dituzten bermeak gainbegiratu behar ditu.
- **Eskubideak.** Datuak eskuratzeko, zuzentzeko, ezerezteko eta aurka egiteko eskubideak.

- **Segurtasun-neurriak.** Fitxategiaren arduradunak eta tratamenduaren arduradunak datu pertsonalen segurtasuna bermatzeko neurriak hartu beharko dituzte.

Datu pertsonalak babesteko legera egkitzea:

Datuak babesteari buruzko araudira egokitzeko, urrats hauek eman behar dira:

- **Indarreko araudia betetzeko egokitzapena** koordinatzeaz arduratuko den pertsona identifikatzea.
- **Datuen babeserako ordezkari bat izendatzea**, datu-kategoria bereziak tratatzen badira edo tratamendua eskala handian egiten bada.
- **Tratamendu-jardueren erregistroa egitea.** Enpresak zer datu biltzen dituen, zertarako, zer neurri hartzen diren eta datuak hirugarrenei lagatzen zaizkien zehazten duen dokumentua. Nahitaezkoa da 250 langile baino gehiago dituzten enpresentzat, baldin eta datu pertsonalen kategoria berezietako tratamenduak egiten badituzte edo arriskuak ekar badituzkete.
- **Arrisku-analisi bat egitea.** Analisia ondorioztatzen badu tratamenduren batek pertsona fisikoen eskubide eta askatasunentzako arrisku handia ekar dezakeela, eraginaren ebaluazioa egin behar da.
- **Segurtasun-neurriak doitzea.** Arriskuen analisia funtsezkoa da enpresaren segurtasun-neurriak egokitzeko eta, arazorik izanez gero, arriskuak murrizteko.
- **Segurtasun-arrakalak jakinarazteko prozedura ezartzea.** Enpresak alde aurretik ezarritako prozedura bat izan beharko du segurtasun-arrakalak jakinarazteko, halakorik sortuz gero.
- Interesdunei informazioa emateko **eskubidea bermatzea.**
- **Baimen esplizitua eskatzea.** Datu pertsonalak helburu komertzialekin biltzen direnean edo mezu elektronikoak bidaltzeko, adibidez, erabiltzaileen berriazko baimena lortu behar da.
- **Enkargu-kontratua.** Enpresa datuen arduraduna bada, baina beste enpresa edo pertsona batzuk tratamenduaz arduratuko badira, arduradunak arduradunen bermeak gainbegiratu behar ditu, eta haiekin tratamendu-enkarguko kontratu bat formalizatu.



Hurbileko merkataritza datuak babesteko erregelamendura egokitzeari buruzko informazio gehiago eman daiteke [gida honetan](#).

Araudia:

[Reglamento \(UE\) 2016/679, Reglamento General de Protección de Datos](#)

[Ley Orgánica 3/2018, de Protección de Datos Personales y garantía de los derechos digitales](#)